

PRUDENCIO IRAZABAL ① ARTISTA

HIGHLIGHTS

Prudencio Irazabal

«New Yorkera iristean, nintzena izateari utzi nion»



NAIOL BODRERO / ARBAZKO PREZIO

IVAN SANTAMARIA - GASTEIZ

Prudencio Irazabalek (Puentelarra, Araba, 1954) duela hogei urte alde egin zuen New Yorkera. Egun ibilbide finkatua du eta pozik dago erakusketak bere sorterrian jaso duen harrerarekin.

Duela hogei urte sorterrria eta lana utzi, eta New Yorkera bizitza berri baten bila abiatzea erabaki zenuen. Nola hartzen da halako erabakia?

Modu inuzentean, ontzi guztiak erre eta bazoazela aurreikusitako gabe. Urtebete igarotzeraz zoz beka bat dator, gero erakusten duzu, eta azkenean tokia egiten duzu artista modura. Baina ez nuen sekula epe luzera begiratu. Zeure jardueraren artistikoa, hasierako une horietan, pixka bat etsita geratu zirela aipatu duzu.

Ni egiten ari nintzenarekin etsita. Han egoera oso indartsua zen; 1980ko hamarkada bukatzen ari zen eta East Village desagertzeaz zegoen, baina Sohoren eztaba urteak ziren. Atarrietan galeria txikiak izatetik espazio erraldoiak hartzeraz igaro zen. Euforia garaiak ziren, eta artista gazteenak ziren baloratuenak. Krisi pertsonala eta nortasunekoia izan nuen. 'Nor naiz ni artista

modura? Zer zentzu du orain arte egin dudana lanak?', galdegiten nion neure buruari.

Nolako aldea sumatu zenuen Euskal Herriaren eta New Yorken artean?

Itzela. New Yorken, nintzena izateari utzi nion. Zarenari buruz itzultzen dizuten irudia desagertzen da. Ezagutza soziala duen lanpostu noblea izatetik, institutuko katedraduna, Manhattanen artista izatera pasatzen zara. Hurrengo bati jo eta bostehun aterako dira. Ez zen aurkezpenik onena; artista nintzela esan eta hurrengo galdera non erakusten ari nintzen zen. Ez nuen esperientziarik eta herrialde urrun batetik nentoren, gainera.

Zeure aspaldiko koadroetan grisak eta kolore beltza dira nagusi. Noiz erabaki zenuen kolore pasatzea?

Kolorea beti egon da hor, baina garai batean ez zen helburua. Urteen poderioz itzuli zen. Artistaren obsesioak berdinak dira bere ibilbide guztian. Forma ezberdina hartzen dute, helduagoak dira akaso, baina egun neure obran ikusten ditudan problematika batzuk duela urte asko ere ikus-

ten nituen dagoeneko azaleratzen.

Eta zeintzuk dira obsesio horiek?

Zer edo ozer interesgarria sortzeko kanpo-indarrekin aliatu beharra dago. Ez naiz trebetasuna baino ez den pinturarekin identifikatzen. Beste bat da pintura errealtate fisiko eta materializat hartzea, ez horrenbeste optikotzat. Pintura ez da zerbaiten gainean jarritako zerbait, hiru dimentsio ditu. Azken aldiaren gehiago dira argia eta kolorea.

Zeure lanaren antolakuntzaz hitz egizu. Nola da sortzen ditu Prudencio Irazabalek bere obrak, zein da prozesua?

Estudioan ordu batzuk egunero igarotzen badituzu, naturala da.

SORTZEKO PROZESUA

«Etengabe, elkarrekin hizketan ari dira egiten ari zaren obra, bihar egingo duzuna, eta atzo egindakoa»

Aldi berean hainbat obra egiten ari zara. Arazoek eta irtenbideek koadro batetik bestera jauzi egiten dute; elkarrizketa etengabea da egiten ari zaren, bihar egingo dituzun eta atzo egin zenituen obraren artean. Koadro bat, lehenik eta behin, beste koadro batetik sortzen da. Ez dut bat bateko inspirazioan sinesten. Koadro bat egiteko hilabeteak behar dira, eta epe horretan zure egoera emozionala asko alda daiteke.

Zure koadroak mugimenduan daudela dirudi, dar-dar egiten.

Formen arteko muga zehatzik ez jartzeak ezegonkortasun irudia ematen du, eta konplexutasun espazialarena. Esaterako, joka daiteke, nire alabarekin egiten dudana moduan, aurrean berdea edo gorria dagoen ikustera.

Argi naturala aretoan sartzeko ere eskatu diozu museoari.

Funtsezkoa, erakusketako gonbidatua da. Azaleraren kalitate sensoriala hainbeste azpimarratzen duten koadroentzako aliaturik onena da. Ikuslea iritsi eta eroso sentituko da argiztapenarekin, koadroak aberasten dira

argi naturalaren eta artifizialaren nahasketarekin, eta zure burua kanpoko munduarekin harremanetan ikusten duzu.

Bada pintura hil dela aldarrikatzen duenik. Nola defenda daiteke horrelako akusazioen aurrean?

Ez dut margotzen pintura bizi dadin. Akademikoei eta kritikoei erabakitzen badute, ahal duten neurrian, pintura hil dela, ez dit axola. Pintura bukatuko bada neuk akabatu behar dut, neuretzat baliogarria den bitartean bizirik dagoelako. Gauzak esatea ahalbideratzen didan bitartekoa den heinean, bizirik dago. Pintura hil dela esan beharra dago merkatuetan beste zerbait altxarazteko, baina, epe luzera, ez da batere kezkatzekoa bere heriotza.

Badakizu Euskal Herriko gizartea nahiko kritikoa dela AEBetakoarekin. Nolako gizartea ikusten duzu zuek, han egonda?

Tamalgarria da. Nire bizitzako etsipen handienetakoia iazko azaroan izan zen, Bush berriro aukeratu zutenean. Han dagoen erregimenarekin bizitza zailagoa egiten zaizu. Zorionez, New York ez da AEBak; neure lagun guztiak etsirik zeuden. 'Zer ari naiz hemen?', galdetzen diozu zeure buruari. Erregimena non-nahi dago, gizarte guztian, eta ezin duzu ihes egin.